ESTRATEGIA 2020
Donostia - San Sebastián

Instituto datakey

# HIRITARREN PERTZEPZIOARI BURUZKO INKESTA






*Donostia*




**2017ko uztaila**

# AURKIBIDEA



AURKEZPENA ....................................................................................3
IKERKETAREN HELBURUA.....................................................................4
METODOLOGIA ....................................................................................5
FITXA TEKNIKOA....................................................................................6
1.- LAGINAREN DESKRIBAPENA...............................................................7
2.- GOGOBETETZE MAILA: HIRIAN BIZITZEA ..........................................10
3.- GOGOBETETZE MAILA: AZPIEGITURAK ETA EKIPAMENDUAK ...............16
4.- HIRIARI BURUZKO IKUSPUNTUAK.......................................................30
5.- GOGOBETETZE MAILA: INGURUMENA ..................................................43
6.- GOGOBETETZE MAILA: EGOERA PERTSONALA........................................53
7.- DONOSTIA ETA URBAN AUDIT 2015KO HIRIEN BATEZBESTEKOA ............... 61
ERANSKINA.- DONOSTIAREN POSIZIONAMENDUA URBAN AUDIT 2015 AZTERLANEKO HIRIEKIN ALDERATUTA............................... 67

# AURKEZPENA



Herritarren pertzepzioari buruzko inkestaren emaitzak jasotzen dira dokumentu honetan. Donostiako 2020 Plan Estrategikoaren segimenduaren esparruan kokatzen da inkesta hori. Hiriari buruz, hiriaren etorkizunari buruz eta hiriak dituen erronkei buruz herritarrek dituzten sentipenak neurtzeko tresna den aldetik, Urteko Aurrerapen Txosteneko elementu esanguratsua da.

Ikerketa honen helburua hiriari buruzko adierazle orokorrak izatea eta Donostiako herritarrek azpiegiturei eta udal zerbitzuei, garapen sozioekonomikoari, hiriaren jasangarritasunari eta bizi-mailari buruz duten pertzepzioaren bilakaera ebaluatzea da, bai eta hiriarentzako proiektu eta erronka estrategikoei buruz duten iritzia jakitea ere.

2017ko ekaineko emaitza hauek beste emaitza batzuekin alderatuta aurkezten dira. Alde batetik, Donostiako Estrategia Bulegoak 2005. eta 2008. urteetan enkargatutako ikerketen emaitzekin, eta, bestetik, Europako Batzordeak sustatuta, Urban Audit proiektuaren esparruan egindako Europako 87 hiritako bizi-kalitatea neurtzeko iritzi-inkestaren emaitzekin (2015eko ekaineko Eurobarometroaren flash argitalpena, 419. zenbakia).



**Ikerketa hau Datakey SL Institutuak egin du (merkatu ikerketak eta iritzi-azterketak egiten dituen Donostiako enpresa).**

# IKERKETAREN HELBURUA





## Hauek dira herritarren pertzepzioa neurtzeko inkesta honen helburu nagusiak:

- Hiritarrek, hiria eta honen zerbitzu eta azpiegituren inguruan duten pertzepzioa eta balorazio orokorra.
- Hiriaren bizi-kalitatearekin erlazionatutako aspektu nagusien balorazioa.
- Hiritarrengan interesa piztu edo eragina duten gai eta aspektuek azken aldian izan duten eboluzioari buruzko balorazioa. Emaitzak alderatzea; hau da, 2008. eta 2005. urteetan egindako ikerketen emaitzekin alderatzea.
- Abian edo aurreikusita dauden proiektu estrategiko nagusien, nahiz garrantzi estrategikoren bat duten gai handien adierazgarritasunari buruz, hiritarrek duten balorazioa.
- Beste hirien bizi-kalitatearekiko eta ebaluatutako alderdi multzoarekiko konparaziozko balorazioa egitea.

# METODOLOGIA



Donostiako herritarren iritzia modu sinesgarrian aurkezteko, guztiz kuantitatiboa den metodologia bat aukeratu da.

Eraginkortasun arrazoiak direla medio, erabilitako teknika, egituratutako galdeketarekin telefono bidezko elkarrizketa egitea izan da, www.survey-datakey.com plataforma bidez. Telefono bidezko inkesta, modu bikainean proposatutako helburuei primeran egokitzen den teknika guztiz kuantitatiboa da. Inkesten batezbesteko iraupena 15 minutukoa izan da.

Galdetegia diseinatzeko, URBAN AUDIT proiektuaren esparruan egindako bizi-kalitateari buruzko iritzi-inkesta eta Donostiako Estrategia Bulegoak 2008an egindako inkesta hartu dira erreferentziatzat. URBAN AUDIT pertzepzioari buruzko inkestan erabilitako eskalak praktikan jartzea erabaki da, Donostia eta metodologia hau erabiliz ebaluatzen diren hirien artean konparaketak egiteko datu homogeneoagoak lortu asmoz. Alternatiba honek zera dakar, aspektu batzuetan 2005-2008eko emaitzekin alderatuta, erabilitako zenbait aldagarritan bakarrik konparatu ahal izango direla bien arteko aldeak.

Galdetegia diseinatu eta gero, lagin pilotu edo pretest bat egin zen galdetegiaren ulergarritasuna egiaztatzeko. Informazioa biltzeko prozesua 2017ko ekainaren 13aren eta 30aren artean egin da.

Laginaren tamainari dagokionez, inkesta Donostian bizi diren 16 eta 74 urte bitartean dituzten 620 pertsonei egin zaie inkesta. Lau adin tarterekin egin da lan hau: 16 eta 29 urte artekoa; 30 eta 44 artekoa; 45 eta 64 artekoa; 65 eta 74 artekoa, eta sei zonalde geografikotan burutu da:

Amara (Berri eta Zaharra).
Mendebaldea: Añorga, Errotaburu, Zubieta, Ibaeta, Berio, Ondarreta, Lorea, Bentaberri, Antiguo, Igeldo y Aiete.
Erdigunea: Miraconcha, Centro, Parte Vieja.
Ekialdea: Gros, Egia, Intxaurrondo, Ulia.
Alza, Bidebieta.
Loiola, Zorroaga, Martutene.

Laginaren banaketa, auzo, sexu eta adinean proportzionala izan da, Donostiako biztanleria osoarekiko.

Euskararen normalizazioaren helburuaren markoaren barruan eta elebitasuna bermatu ahal izateko, galderak euskaraz, nahiz gazteleraz egin dituzten inkestariak izan dira galdegileak, hiritarrak telefonoz erantzuterakoan erabili duen hizkuntzaren arabera.

# FITXA TEKNIKOA





| | |
|---|---|
| **Laginaren Unibertsoa** | Donostian bizi diren eta 16 eta 74 urte artean dituzten pertsonak |
| **Laginaren Tamaina** | 620 inkestak |
| **Laginaren Akatsa** | %±4 %95,5%eko konfiantza indizea eta p=q=0,5 |
| **Ikerketa teknika** | Telefono inkesta anonimoa, survey-datakey plataforman egina |
| **Laginaren sistema** | Ausazkoa, sexu, adin eta bizilekuarekiko |
| **Landa-azterketa** | 2017ko ekainak 13tik 30ra |

Datakey S.L. Institutuak egindako txostena

# 1- LAGINAREN DESKRIBAPENA

# *LAGINAREN DESKRIBAPENA*



## Adina




## Sexua




## Jaioterria




## Bizikidetza-unitate mota




## Okupazio printzipala



# LAGINAREN DESKRIBAPENA





## Gunea




(1) Amara Berri, Loiolako Erriberak, Amara Zaharra
(2) Mendebaldea: Añorga, Errotaburu, Zubieta, Ibaeta, Berio, Ondarreta, Lorea, Bentaberri, Antiguo, Igeldo eta Aiete.
(3) Erdigunea: Mirakontxa, Erdialdea, Alde Zaharra.
(4) Ekialdea: Gros, Egia, Intxaurrondo, Ulia.

## Auzoan bizitako urte kopurua




## Auzoa



# 2- GOGOBETETZE MAILA: HIRIAN BIZITZEA

## GOGOBETETZE MAILA: DONOSTIAN BIZITZEA





Lehenik, hirian eta norbere auzoan bizitzeari buruzko gogobetetze-mailaren balorazio orokorrari dagozkion emaitzak aurkezten dira. Horretarako, hiru baieztapen enuntziatu dira, eta galdekatutako donostiarrek enuntziatu bakoitzarekin duten adostasun maila adierazi dute:

- Donostiako bizi kalitatearekin gustora al zaude?
- Donostian bizitzearekin gustora nago
- Pozik nago auzoan bizitzeaz

# GOGOBETETZE MAILA: DONOSTIAN BIZITZEA



Orokorrean, bost elkarrizketatutik lauk donostiako bizi-kalitatearekin beti gustura daudela esan dute (% 79). Ehunetik lau besterik ez dator inoiz edo ia inoiz pertzepzio honekin bat. Kasu horretan, gogobetetze-maila nabarmen handiagoa da Ibaeta auzoan (eta, oro har, hiriaren mendebaldean) bizi diren pertsonen artean, eta, txikiagoa, hiriaren erdialdean bizi diren herritarren artean. Era berean, gogobetetze-maila handiagoa adierazi dute ikasleek, adin talde gazteenak (16 urtetik 29 urtera) eta 65 urtetik gorakoek edo hilabete amaierara iristeko zailtasun gutxien dutenek; aitzitik, gogobetetze-maila baxuena 30etik 44 urtera arteko adin taldeko herritarrek, langabezian daudenek eta hilabete amaierara iristeko zailtasun handienak dituztenek adierazi dute.

Ildo horretan**, elkarrizketatutako hiru pertsonatik bik** (% 66) **Donostian oso pozik bizi direla adierazi dute**, eta ia inork ez du adierazi ez dela batere pozik bizi hirian (% 0,6). Pertzepzio hori are hobea da ikasleen artean, bai eta hilabete amaierara iristeko inoiz zailtasunik ez dutenen artean ere. Pertzepzio hori okerragoa da erdialdean bizi direnen artean, Donostian jaio ez direnen artean, langabezian daudenen artean eta hilabete amaierara iristeko zailtasunak dituztenen artean.

**Norbere auzoan bizitzeari buruzko pertzepzioari** dagokionez, **erdiak baino gehiagok** (% 57,5) **guztiz pozik dagoela** adierazi du; % 4k soilik adierazi du ez dagoela pozik eta ia inork ez du adierazi ez dagoela batere pozik. Gogobetetze-maila bereziki da positiboa Grosen, Antigua-Ondarreta-Benta Berri-Lorean bizi direnen artean eta hilabete amaierara iristeko inoiz zailtasunik ez dutenen artean; eta ez da hain positiboa, erdialdean bizi direnen artean eta hilabete amaierara iristeko zailtasun gehien dituztenen artean.

Planteatutako hiru galderei dagokienez, emaitza hobea izan da auzo batean duela 10 urte baina gehiago bizi izan direnen artean.

# GOGOBETETZE MAILA: DONOSTIAN BIZITZEA



## Donostiako bizi kalitatearekin gustora al zaude?




Batezbesteko balorazioa (0tik 10era)

9,13




Batezbesteko balorazioa (0tik 10era)

9,13

+ 0,17

8,96

### Alde nabarmenak

| BATEZBESTEKOA | | | TXIKIAGOA | HANDIAGIA | |
|---|---|---|---|---|---|
| 9,13 | DONOSTIAKO BIZI KALITATEAREKIN GUSTORA AL ZAUDE? | 8,27 | ERDIALDEA (3) | MENDEBALDEA (2) | 9,44 |
| | | 7,67 | Erdialdea / Mirakontxa | *Ibaeta / Errotaburu / Igara / Berio / Pakea | 9,89 |
| | | 8,76 | 30 - 44 urte bitarte | 16 - 29 urte bitarte | 9,52 |
| | | | | 65 urte baino gehiago | 9,50 |
| | | 8,06 | Langabetua | *Ikaslea | 9,74 |
| | | 8,14 | Beti dituzte hilabete amaierara iristeko zailtasunak | *Inoiz ez dute hilabete amaierara iristeko zailtasunik | 9,42 |
| | | | | > 10 urte daramatza auzoan bizitzen | 9,18 |

# GOGOBETETZE MAILA: DONOSTIAN BIZITZEA



## Donostian bizitzearekin gustora nago




Batezbesteko balorazioa (0tik 10era)

8,76




Batezbesteko balorazioa (0tik 10era)

8,76

+ 0,04

8,72

## Alde nabarmenak

| BATEZBESTEKOA | | | TXIKIAGOA | HANDIAGIA | |
|---|---|---|---|---|---|
| 8,76 | DONOSTIAN BIZITZEAREKIN GUSTORA NAGO | 7,80 | ERDIALDEA (3) | | |
| | | 7,44 | Erdialdea / Mirakontxa | | |
| | | 7,87 | Langabetua | *Ikaslea | 9,32 |
| | | 8,20 | Gipuzkoan jaioa (Donostiatik kanpo) | | |
| | | | | *> 10 urte daramatza auzoan bizitzen | 8,85 |
| | | 8,28 | Oso gutxitan dituzte hilabete amaierara iristeko zailtasunak | Inoiz ez dute hilabete amaierara iristeko zailtasunik | 8,94 |

# GOGOBETETZE MAILA: DONOSTIAN BIZITZEA



## Pozik nago auzoan bizitzeaz




Batezbesteko balorazioa (0tik 10era)

8,37

## Alde nabarmenak

| BATEZBESTEKOA | | | TXIKIAGOA | HANDIAGIA | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | 7,44 | ERDIALDEA (3) | | |
| 8,37 | POZIK NAGO AUZOAN BIZITZEAZ | | | Antiguo / Ondarreta / Benta Berri / Lorea | 8,95 |
| | | | | Gros | 9,08 |
| | | | | > 10 urte daramatza auzoan bizitzen | 8,43 |
| | | 7,78 | Oso gutxitan dituzte hilabete amaierara iristeko zailtasunak | Inoiz ez dute hilabete amaierara iristeko zailtasunik | 8,55 |

# 3- GOGOBETETZE MAILA: AZPIEGITURAK ETA EKIPAMENDUAK

## GOGOBETETZE MAILA: AZPIEGITURAK ETA EKIPAMENDUAK



Ondoren, donostiako azpiegitur eta instalazioaren inguruko emaitzak aurkezten dira. Horretarako, elkarrizketatuari hiriko azpiegitura edo instalazio hauekin duen satisfazio maila zein den galdetu zaio:

- Hiriko garraio publikoak
- Hospital eta sanítate serbitzuak
- Hiriko gune berdeak ( parkeak, lorategiak…)
- Hostalaritza eta jatetxeak
- Kulturguneak,
- Hezkuntza-sarea
- Espazio publikoak
- Ongizate eta gizarte laguntza serbitzuak
- Haurrentzako parkeak
- Argiteria publikoa
- Bidegorri-sarea
- Hiriaren zaintza eta kontserbazioa
- Kirol ekipamentuak
- Hurbileko saltokiak egotea
- Osasun Publikoaren kontrola
- Auzoko kaleen eta eraikinen egoera

**Aztertutako hamasei azpiegiturek eta ekipamenduek 6 puntuko batez besteko nota gainditu dute** (0 eta 10 arteko eskalan), eta batez besteko balorazioa 6,8 puntukoa izan da.

**Beste guztien gainetik**, **garraio publikoari** (7,7) eta **osasun- eta ospitale-arretari buruzko aldeko iritziak** nabarmendu dira: 7,5eko balorazioa gainditzen dute eta % 90eko gogobetetze maila aurkezten dute. Parkeak eta lorategiak dituzten **berdeguneek**, **ostalaritzak/jatetxeek** eta **kultur guneek** 7 puntuko balorazioa lortu dute (10etik); hau da, ekipamendu guztien **batez bestekoa baino altuagoa.**

Antzeko balorazioa edo batez **bestekoaren inguruko balorazioa (6,8)** dute **hezkuntza-sareak** (% 20k ED/EDE), **gune publikoek**, **ongizate-zerbitzuak/gizarte-laguntzak** (% 42k ED/EDE), **haurrentzako parkeek** (% 13k ED/EDE) eta **argiteria publikoak**. Bidegorri-sareak 6,6 puntuko balorazioa jaso du; izan ere, balorazioen % 25 oso onak izan dira, baina bidegorriekin gustura ez dauden donostiarren ehunekoa handia izan da (% 20).

**Balorazio okerrena izan duten ekipamenduak**, hau da, oso gustura daudenen ehunekoa gustura ez daudenen ehunekoa baino txikiagoa izan dutenak hauek dira: **hiriaren zaintza eta kontserbazioa** (6,55), **kirol-ekipamenduak** (6,46), **hurbileko merkataritzaren presentzia** (6,35) eta **Osasun Publikoaren kontrola** (6,26). Bestalde, balorazio okerrena jaso duen alderdia **auzoetako kaleen eta eraikinen egoera** izan da (6,15).

# GOGOBETETZE MAILA: AZPIEGITURAK ETA EKIPAMENDUAK



Batez besteko balorazioaren bilakaerari dagokionez, 2008ko neurketako zortzi alderdiekin alderatuta, gaur egun puntuazio onena atera duten alderdiak asko nabarmentzen dira: hiriko garraio publikoa, osasun- eta ospitale-arreta, hiriko berdeguneak, bai eta hezkuntza-sarea ere. Balorazioa hobetu dute, nahiz eta neurri txikiagoan, ongizate-zerbitzuak/gizarte-laguntzak, kirol-ekipamenduek eta ostalaritzak/jatetxeek. Alderatutako alderdien artean balorazio okerragoa izan duen bakarra hiriko kultur guneei dagokiena da. Gogobetetze-mailaren ehunekoari dagokionez, azken lau alderdi horiek ez dute aldakuntza handirik 2005eko eta 2008ko emaitzekin alderatuta.

Urban Audit 2015 azterlaneko hiriek lortutako batez besteko balorazioari dagokionez, alderatutako bederatzi alderdietan, **Donostiaren emaitzak hobeak edo antzekoak dira, bi alderditan izan ezik**: **hurbileko merkataritzaren presentzia** (-1,1) eta **kultur guneak** (-0,2). Aldeko diferentzia handienak balorazio onena duten azpiegiturenak izan dira, hau da**, osasun- eta ospitale-arretan** (+1,3) eta **hiriko garraio publikoan** (+1,1); baina, era berean, aldeko diferentzia handia lortu da emaitza okerrenak lortu diren alderdian (**auzoetako kaleen** eta eraikinen egoera (+0,4)). **Gune publikoek** (+0,3), **berdeguneek** (+0,2), **kirol-ekipamenduek** (+0,1) eta **hezkuntza-sareak** (+0,1) konparazio positiboa du, baina ez dira alde handiak.

# GOGOBETETZE MAILA: AZPIEGITURAK ETA EKIPAMENDUAK





ESTRATEGIA 2020
Donostia - San Sebastián

## GOGOBETETZE MAILA: AZPIEGITURAK ETA EKIPAMENDUAK

Instituto datakey



### Batezbesteko balorazioa (0tik 10era)



# GOGOBETETZE MAILA: AZPIEGITURAK ETA EKIPAMENDUAK



## Pozik eta oso pozik dauden pertsonen ehunekoa



# GOGOBETETZE MAILA: AZPIEGITURAK ETA EKIPAMENDUAK





## URBAN AUDITEKIKO ALDERAKETA
## Batezbesteko balorazioa (0tik 10era)



ESTRATEGIA 2020
Donostia - San Sebastián

## GOGOBETETZE MAILA: AZPIEGITURAK ETA EKIPAMENDUAK

Instituto datakey

### URBAN AUDITEKIKO ALDERAKETA
### Pozik eta oso pozik dauden pertsonen ehunekoa




HIRITARREN PERTZEPZIOARI BURUZKO INKESTA DONOSTIA

# GOGOBETETZE MAILA: AZPIEGITURAK ETA EKIPAMENDUAK



## Pozik eta oso pozik dauden pertsonen ehunekoa






# GOGOBETETZE MAILA: AZPIEGITURAK ETA EKIPAMENDUAK



## Batezbesteko balorazioa (0tik 10era)






# GOGOBETETZE MAILA: AZPIEGITURAK ETA EKIPAMENDUAK



## Alde nabarmenak

| BATEZBESTEKOA | | | TXIKIAGOA | HANDIAGIA | |
|---|---|---|---|---|---|
| 7,70 | HIRIKO GARRAIO PUBLIKOAK | 7,32 | MENDEBALDEA (2) | | 8,37 |
| | | 6,75 | Egia /Tolaregoia | Gros | 8,37 |
| | | | | 65 urte baino gehiago | 8,20 |
| | | 7,51 | Emakumezkoa | Gizonezkoa | 7,89 |
| | | 7,51 | Langilea | Jubilatua / Pentsioduna | 8,19 |
| | | 7,23 | Oso gutxitan dituzte hilabete amaierara iristeko zailtasunak | | |
| 7,53 | OSASUN-ARLOKO ETA OSPITALETAKO LAGUNTZA (SENDAGILEAK, OSPITALEAK, OSASUN-ZENTROAK…) | 7,16 | EKIALDEA (4) | | |
| | | 7,36 | Langilea | | |
| | | 7,41 | Donostian jaioa | Gipuzkoan jaioa (Donostiatik kanpo) | 8,10 |
| 7,04 | HIRIKO GUNE BERDEAK (PARKEAK, LORATEGIAK) | 6,41 | ALTZA / BIDEBIETA | | |
| | | 6,23 | Altza / Herrera / Larratxo | Ulia / Ategorrieta | 7,92 |
| | | 6,67 | 45 - 64 urte bitarte | *16 - 29 urte bitarte | 7,70 |
| | | 6,11 | Langabetua | *Ikaslea | 7,86 |
| 6,99 | HOSTALARITZA ETA JATETXEAK | 6,68 | 45 - 64 urte bitarte | 16 - 29 urte bitarte | 7,51 |
| | | 6,67 | *Urtebete baino gutxiago darama bere auzoan bizitzen | | |
| | | | | *Ikaslea | 7,68 |
| 6,97 | KULTURGUNEAK, HALA NOLA KONTZERTU-ARETOAK, ANTZOKIAK, MUSEOAK, LIBURUTEGIAK, KUTURA-ETXEAK | | | Alde Zaharra | 8,08 |
| | | 6,86 | Donostian jaioa | | |
| | | 6,61 | Oso gutxitan dituzte hilabete amaierara iristeko zailtasunak | Inoiz ez dute hilabete amaierara iristeko zailtasunik | 7,15 |
| 6,82 | HEZKUNTZA-SAREA (IKASTETXEAK ETA BESTE HEZKUNTZA-ESTABLEZIMENDU BATZUK) | 6,67 | *Donostian jaioa | Beste herrialderen batean jaioa | 7,50 |
| 6,80 | ESPAZIO PUBLIKOAK, HALA NOLA AZOKAK, PLAZAK, OINEZKOENTZAKO EREMUAK... | | | 16 - 29 urte bitarte | 7,17 |

# GOGOBETETZE MAILA: AZPIEGITURAK ETA EKIPAMENDUAK



## Alde nabarmenak

| BATEZBESTEKOA | | TXIKIAGOA | | HANDIAGIA | |
|---|---|---|---|---|---|
| 6,79 | ONGIZATE ETA GIZARTE LAGUNTZA SERBITZUAK | 6,54 | Langilea | Beste herrialderen batean jaioa | 7,84 |
| | | 6,68 | *> 10 urte daramatza auzoan bizitzen | 1 - 5 urte daramatza bere auzoan bizitzen | 7,52 |
| 6,69 | HAURRENTZAKO PARKEAK | 6,53 | *Donostian jaioa | 16 - 29 urte bitarte | 7,12 |
| | | | | Espainian jaioa | 7,19 |
| | | | | Beste herrialderen batean jaioa | 7,42 |
| | | | | Inoiz ez dute hilabete amaierara iristeko zailtasunik | 6,87 |
| 6,65 | ARGITERIA PUBLIKOA | 6,05 | *45 - 64 urte bitarte | *16 - 29 urte bitarte | 7,43 |
| | | 5,65 | Langabetua | *Ikaslea | 7,78 |
| | | 6,57 | > 10 urte daramatza auzoan bizitzen | Beste herrialderen batean jaioa | 7,37 |
| | | 6,16 | Oso gutxitan dituzte hilabete amaierara iristeko zailtasunak | 5 - 10 urte daramatza auzoan bizitzen | 7,35 |
| 6,63 | BIDEGORRI-SAREA | 5,81 | Egia /Tolaregoia | 16 - 29 urte bitarte | 7,14 |
| | | 6,54 | > 10 urte daramatza auzoan bizitzen | Urtebete baino gutxiago darama bere auzoan bizitzen | 8,33 |
| 6,55 | HIRIAREN ZAINTZA ETA KONTSERBAZIOA | 6,10 | *45 - 64 urte bitarte | Bidebieta / Mirakruz / La Paz | 7,39 |
| | | 6,44 | Donostian jaioa | *16 - 29 urte bitarte | 7,37 |
| | | 6,44 | *> 10 urte daramatza auzoan bizitzen | *Ikaslea | 7,48 |
| | | | | Beste herrialderen batean jaioa | 7,37 |
| | | | | 5 - 10 urte daramatza auzoan bizitzen | 7,41 |

# GOGOBETETZE MAILA: AZPIEGITURAK ETA EKIPAMENDUAK



## Alde nabarmenak

| BATEZBESTEKOA | | TXIKIAGOA | | HANDIAGIA | |
|---|---|---|---|---|---|
| 6,46 | KIROL EKIPAMENTUAK | | | MENDEBALDEA (2) | 6,86 |
| | | | | Bidebieta / Mirakruz / La Paz | 7,39 |
| | | 6,10 | *45 - 64 urte bitarte | *16 - 29 urte bitarte | 7,37 |
| | | | | *Ikaslea | 7,48 |
| | | 6,44 | Donostian jaioa | Beste herrialderen batean jaioa | 7,37 |
| | | 6,44 | *> 10 urte daramatza auzoan bizitzen | | |
| 6,35 | HURBILEKO SALTOKIAK EGOTEA | | | AMARA (1) | 7,04 |
| | | | | *Amara Berri / Loiolako Erriberak | 7,21 |
| | | 5,07 | Ulia / Ategorrieta | Gros | 7,16 |
| | | | | 16 - 29 urte bitarte | 6,92 |
| | | | | *Ikaslea | 7,18 |
| | | 5,86 | Oso gutxitan dituzte hilabete amaierara iristeko zailtasunak | | |
| 6,26 | OSASON PUBLIAKOAREN KONTROLA (ANIMALIAK, IZURRIAK, URA, ELIKAGAIAK ETA ABARRAK KONTROLATZEA) | 5,70 | *45 - 64 urte bitarte | *16 - 29 urte bitarte | 7,23 |
| | | | | Gizonezkoa | 6,43 |
| | | 5,49 | Langabetua | *Ikaslea | 7,60 |
| | | 6,20 | > 10 urte daramatza auzoan bizitzen | | |
| 6,15 | AUZOKO KALEEN ETA ERAIKINEN EGOERA | | | ERDIALDEA (3) | 6,96 |
| | | 5,55 | *45 - 64 urte bitarte | Erdialdea / Mirakontxa | 7,33 |
| | | | | *16 - 29 urte bitarte | 6,94 |
| | | | | 65 urte baino gehiago | 6,70 |
| | | 5,79 | *Langilea | *Ikaslea | 7,26 |
| | | 6,01 | Donostian jaioa | Beste herrialderen batean jaioa | 6,92 |

# 4- HIRIARI BURUZKO IKUSPUNTUAK

## HIRIARI BURUZKO IKUSPUNTUAK



Jarraian, Donostiako errealitate sozialari buruzko iritziei buruzko emaitzak aurkezten dira. Horretarako,

- Seguru sentitzen naiz nire hirian
- Nire auzoko jende gehienarekin fida zaitezke oro har
- Nire hiriko jende gehienarekin fida zaitezke oro har
- Donostiak harreman onak ditu inguruko eta Gipuzkoa osoko  Udaletxeekin.
- Errepide bidezko loturak Donostiarekin
- Tren bidezko loturak Donostiarekin
- Aireportu-loturak Donostiarekin
- Kultur eskaintza
- Aisialdi  aukerak
- Atzerritarrak egotea ona da nire hiriarentzat
- Hirian bizi diren atzerritarrak erabat integratuak daude
- Administrazio publikoarekin fida zaitezke oro har
- Administraritza serbitzuak egokiak dira biztanlegoaren serbitzurako.
- Udalak ordaindutako zergei eta jasotzen dituzun zerbitzuei dagokienez.
- Donostia hiri egokia da enpresa bat sortzeko eta garatzeko.
- Donostian lan aukera handia dago
- Hiriko egoiliarrentzako aparkalekuak
- Erraza da etxebizitza arrazoizko prezioan aurkitzea
- Donostia EZ* da hiri garestia bizitzeko (*«Donostia hiri garestia da bizitzeko» baieztapenarekiko adostasun maila zein den galdetuta, emaitza alderantzizkoa da)

# HIRIARI BURUZKO IKUSPUNTUAK





**Hemeretzi alderdiri** buruzko gogobetetze maila ebaluatu da, eta horietako zazpik balorazio garbiki positiboa izan dute. Zeharo iritzi negatiboak eragin dituzten bi baieztapen kenduta (erraza da etxebizitza arrazoizko prezio batean aurkitzea eta Donostia EZ da hiri garestia bizitzeko), gainerako **baieztapenen** batez bestekoa **6,15** puntukoa da (10etik). Lau alderdik batez besteko horren inguruko balorazioa izan dute, eta gainerako seik, berriz, 6 puntu baino gutxiago izan dituzte.

**Hiru puntuazio positiboki nabarmendu dira**; elkarren arteko korrelazio handia dute eta % 90 inguruko gogobetetze-indizeak izan dituzte: **segurtasun-sentipena** (7,7), **norberaren auzoko jendearengan konfiantza»** (7,5) eta **hiriko jende gehienarengan konfiantza** (7,3). **Era berean, emaitza onak lortu dituzte** alderdi hauek: **errepide bidezko konexioak Donostiarekin** (7,1), **inguruko udalerriekin eta Gipuzkoako gainerako udalerriekin dauden harremanak** (6,8 puntu – % 27k ED/EDE), **kultur eskaintza eta Donostiaren tren bidezko konexioak** (6,5).

**Batez bestekotik hurbil (6,15)** lau alderdi daude, oso pozik daudenen puntuazioa pozik ez daudenen puntuazioa baino txikiagoa izan dutenak: **aisialdiko eskaintza** (6,3), **atzerritarren presentzia ona da nire hiriarentzat** (6,3), **administrazio publikoarekiko konfiantza** (6,1) eta **administrazio-zerbitzuen eraginkortasuna herritarren arretari dagokionez** (6,0).

Enpleguaren sorrerari buruzko bi alderdik **6 puntu baino gutxiago** izan dituzte: **Donostia hiri egokia da enpresak sortzeko eta garatzeko** (5,8 – % 17k ED/EDE) eta **lana aurkitzeko aukerak** (4,8). Halaber, 6 puntutik beherako balorazioa izan dute hauek: **atzerritarren integrazioa** (5,8), **udal-zergen eta jasotzen diren zerbitzuen arteko erlazioaren inguruko gogobetetze-maila** (5,0), **aireportu bidezko konexioak** (4,9) eta **hiriko egoiliarrentzako aparkalekuak** (4,2 puntu – %17k ED/EDE). Aipatu den bezala, guztizko desadostasuna eragin dute baieztapen hauek: erraza da etxebizitza bat arrazoizko prezioan aurkitzea eta Donostia EZ da hiri garestia bizitzeko.

Azken neurketarekin (2008) **alderatuta**, alderatutako zortzi alderdietatik bakarrak aurkezten du batez **besteko gogobetetze-mailaren bilakaera negatiboa**; **kultur eskaintza** (-0,5). **Oso positiboki nabarmentzen da** gaur egun ez ezik, 2008an ere puntuazio handiena izan zuen alderdia: **hiriko segurtasun-sentipena** (+1,2). Gaur egun balorazio okerrena izan duten alderdien artean, hauek **nabarmentzen dira**, izan **duten bilakaera positiboa** dela eta: **hirian bizi diren atzerritarren integrazioa, Donostia hiri egokia da enpresak sortzeko eta garatzeko, administrazio zerbitzuen eraginkortasuna herritarren arretari dagokionez**. **Aisialdiko eskaintzak** ere bere puntuazioa hobetu du.

Bi **alderdik bilakaera arinki positiboa** izan dute. Batetik, okerren baloratutako batek: **Donostian lana aurkitzeko aukerak;** bestetik, balorazio onenetakoa duen batek: **inguruko udalerriekin eta Gipuzkoako gainerako udalerriekin dauden harreman onak.**

**Urban Audit 2015** azterlaneko 87 hirietan lortutako batez besteko balorazioari dagokionez**, Donostiak emaitza hobeak izan ditu alderatutako zortzi alderdietatik zazpitan**; emaitza okerragoa lortu du**, berriz**, atzerritarren presentzia ona da nire hiriarentzat (-0,3) baieztapenean. Gutxien baloratutako hiru alderdietatik bitan izan dira **alde handienak hemen**: **seguru sentitzen naiz nire hirian** (+1,1); **oro har, konfiantza izan daiteke nire hiriko jende gehienarengan** (+1,5). Hirugarren alderdian **(konfiantza izan daiteke nire auzoko jende gehienarengan** (+0,6)) aldea txikiagoa da. **Donostian lana aurkitzeko aukerak** baieztapena izan da donostiarrak gutxien gogobete dituena –alderatutako zortzi baieztapenetatik–; nolanahi ere, Urban Auditeko hirien batez bestekoa (+0,8) baino askoz ere emaitza hobea lortu du. Bestalde, **administrazio publikoarekiko konfiantza** (+0,5) eta **atzerritarren integrazioa hirian** (+0,3) alderdietan, aldea txikiagoa bada ere, alderaketen emaitzak positiboak izan dira.

ESTRATEGIA 2020
Donostia - San Sebastián

# HIRIARI BURUZKO IKUSPUNTUAK

Instituto datakey

HIRITARREN PERTZEPZIOARI BURUZKO INKESTA DONOSTIA



ESTRATEGIA 2020 Donostia - San Sebastián

# HIRIARI BURUZKO IKUSPUNTUAK

## URBAN AUDITEKIKO ALDERAKETA
## Batezbesteko balorazioa (0ti 10era)



ESTRATEGIA 2020
Donostia - San Sebastián

# HIRIARI BURUZKO IKUSPUNTUAK

Instituto datakey

## Pozik eta oso pozik dauden pertsonen ehunekoa



# HIRIARI BURUZKO IKUSPUNTUAK



## URBAN AUDITEKIKO ALDERAKETA
## Pozik eta oso pozik dauden pertsonen ehunekoa



# HIRIARI BURUZKO IKUSPUNTUAK

## Pozik eta oso pozik dauden pertsonen ehunekoa






## HIRIARI BURUZKO IKUSPUNTUAK





### Batezbeteko balorazioa (0tik 10era)






# HIRIARI BURUZKO IKUSPUNTUAK



## Alde nabarmenak

| BATEZBESTEKOA | | TXIKIAGOA | | HANDIAGIA | |
|---|---|---|---|---|---|
| 7,72 | SEGURU SENTITZEN NAIZ NIRE HIRIAN | | | ERDIALDEA (3) | 8,39 |
| | | 7,50 | Emakumezkoa | Gizonezkoa | 7,95 |
| | | | | *Ikaslea | 8,25 |
| | | 7,67 | > 10 urte daramatza auzoan bizitzen | | |
| | | 7,31 | Oso gutxitan dituzte hilabete amaierara iristeko zailtasunak | *Inoiz ez dute hilabete amaierara iristeko zailtasunik | 7,98 |
| 7,44 | NIRE AUZOKO JENDE GEHIENAREKIN FIDA ZAITEZKE ORO HAR | | | MENDEBALDEA (2) | 7,78 |
| | | | | *Inoiz ez dute hilabete amaierara iristeko zailtasunik | 7,68 |
| 7,31 | NIRE HIRIKO JENDE GEHIENAREKIN FIDA ZAITEZKE ORO HAR | 6,51 | Etxeko lanak | | |
| | | | | Inoiz ez dute hilabete amaierara iristeko zailtasunik | 7,52 |
| 7,07 | ERREPIDE BIDEZKO LOTURAK DONOSTIAREKIN | 6,77 | EKIALDEA (4) | | |
| | | 6,42 | Egia /Tolaregoia | | |
| | | 7,01 | > 10 urte daramatza auzoan bizitzen | | |
| | | 5,68 | *MENDEBALDEA (2) | | |
| 6,80 | DONOSTIAK HARREMAN ONAK DITU INGURUKO ETA GIPUZKOA OSOKO UDALETXEEKIN | 6,53 | *Langilea | *Ikaslea | 7,49 |
| 6,50 | KULTUR ESKAINTZA | | | Alde Zaharra | 7,18 |
| | | 6,27 | Langilea | *Ikaslea | 7,13 |
| | | 6,29 | *Donostian jaioa | Espainian jaioa | 6,98 |
| | | | | Beste herrialderen batean jaioa | 7,25 |
| 6,47 | TREN BIDEZKO LOTURAK DONOSTIAREKIN | 5,68 | *MENDEBALDEA (2) | *ALTZA-BIDEBIETA | 7,23 |
| | | 5,63 | Aiete / Miramon / Zorroaga | Altza / Herrera / Larratxo | 7,16 |
| | | 4,90 | *Antiguo / Ondarreta / Benta Berri / Lorea | Bidebieta / Mirakruz / La Paz | 7,46 |
| | | | | Intxaurrondo | 7,14 |
| | | 6,38 | *> 10 urte daramatza auzoan bizitzen | | |

# HIRIARI BURUZKO IKUSPUNTUAK



## Alde nabarmenak

| BATEZBESTEKOA | | | TXIKIAGOA | | HANDIAGIA |
|---|---|---|---|---|---|
| 6,31 | AISIALDI AUKERAK | | | Gros | 7,06 |
| | | | | *65 urte baino gehiago | 6,92 |
| | | 6,12 | Langilea | *Jubilatua / Pentsioduna | 6,91 |
| | | 6,07 | *Donostian jaioa | Espainian jaioa | 6,90 |
| 6,27 | ATZERRITARRAK EGOTEA ONA DA HIRIARENTZAT | | | MENDEBALDEA (2) | 6,64 |
| | | 5,56 | Altza / Herrera / Larratxo | Ibaeta / Errotaburu / Igara / Berio / Pakea | 7,47 |
